

ONARRIZKO ESTADISTIKA SPSS ERABILIZ

ECTS kreditu kopurua: 1

EH2201

Nori zuzendua

Edozein jakintza-arloko UPV/EHU-ko irakasle eta ikertzaile orokorrei zuzentzen zaie, bere irakaskuntzan edo ikerkuntzan oinarrizko estatistika lagungarri izan ahal zaienei. eGelapirako sarbidea aktibatuta eta SPSS programa instalatua edo erabiltzeko aukera edukitzea ezinbestekoa da.

Sarrera / Ikastaroaren deskribapena

Zalantzarik gabe, Estatistika arlo anitzetan agertzen den interes handiko irakasgaia da. Are gehiago, jakintza-arlo guztietan aintzat hartzen da, Zientzia Esperimentaletan, Zientzia Juridikoen eta Ekonomia Zientzietan, Medikuntza eta Osasun Zientzietan, Gizarte Zientzietan, Irakaskuntza Teknikoetan eta Giza Zientzietan, hain zuzen ere. Bestalde, gaur egun gauza jakina da softwarea erabiltzea ezinbestekoa dela datu-baseen kudeaketa gauzatzeko. SPSS (Statistical Package for Social Sciences) Statistics izeneko IBMren programaren bidez, arlo horretan espezializatua, Estatistikako oinarrizko kontzeptuak aplikatu daitezke era erraz eta zabalean. Ikastaro honek ezagutza teorikoak eta batez ere praktikoak garatzea gura du, estatistika deskribatzailea zein inferentziala landuz. Adibide anitzetatik baliatuz, Estatistikako teknikak, hautatu, inplementatu eta emaitzak interpretatuko dira,

Ikastaroan zehar garatuko diren gaitasunak

- 1G. Bildutako datuak fitxategi moduan antolatzeko gaitasuna, ale esperimentala eta aldagaiak definituz.
- 2G. Bildutako datuak laburbiltzea; horretarako, taula, zenbaki eta grafikoak erabiliz.
- 3G. Ikerketan planteatzen den helburu zientifikoari, ditugun datuekin erantzuteko beharrezkoa den azterketa estatistikoa aukeratzea.
- 4G. Inferentzia estatistikoko sinplea, lagin bat eta bi laginerako, burutzea.
- 5G. Azterketa estatistikoko sinple batetik ateratzen diren emaitzak interpretatzea eta ondorio zientifikoak ateratzeko erabiltzea.

Metodología

Ikastaroa oso praktikoa da orokorrean. Bi orduko zortzi saiotan antolatuta dago. Saio bakoitzean zortzi edukietako bat landuko da. Lehenik, oinarrizko kontzeptuak birpasatuko dira sarrera labur baten bidez; bigarrenik, adibide batzuen laguntzaz, teknika bakoitza SPSS erabiliz landuko da; azkenik, aurretik azaldutakoa lantzeko autoebaluaziorako galdetegi batzuk egiteko aukera egongo da.

Gainera lau ordu gehiagarri egongo dira talde murriztuan lan egiteko eta zalantzak planteatzeko.

Adibideak SPSS programaren barneko fitxategiak, liburu zientifikoek ariketak edo gaur egungo datuetan oinarritutakoak izango dira. Saioak online izango dira eGelari plataformako Webex tresnaren bitartez.

Edukiak

1. Datu-baseak
2. Estatistika deskribatzailea aldagai baterako
3. Estatistika deskribatzailea bi aldagairako
4. Zenbatespena lagin bat eta birako
5. Hipotesi-kontraste parametrikokoak
6. Hipotesi-kontraste ez-parametrikokoak
7. Bariantza analisisa (ANOVA)
8. Erregresioa eta korrelazioa

Zereginak

Ikastaroaren egiaztagiria lortzeko saioetan proposatzen diren autoebaluazio praktikoen %75a gainditu beharko da.

Gaitasuna	Zeregina	Denbora	Ebaluazioa
1G	1. galdetegia BD	2 ordu	%25
1G, 2G	2. galdetegia ED1	2 ordu	
1G, 2G	3. galdetegia ED2	2 ordu	%25
1G, 4G, 5G	4. galdetegia KT	2 ordu	
1G, 4G, 5G	5. galdetegia HK	2 ordu	%25
1G, 4G, 5G	6. galdetegia HKE	2 ordu	
1G, 4G, 5G	7. galdetegia ANOVA	2 ordu	%25
1G, 4G, 5G	8. galdetegia ERREG	2 ordu	

Datuak

Iraupena

ECTS kreditu bat (25 ordu)

20 ordu online sinkronikoak + 5 ordu lan autonomoa

Datak

2022ko Urtarrilak 11, 12, 13, 17, 18, 19, 25 eta 26 (8 egun)

Ordutegia (presentziala eta online)

Talde osoa, bi orduko lau saio presentzial:

- Urtarrilak 11, 12, 25 eta 26 (9:30-11:30).

Talde osoa, bi orduko lau saio online sinkroniko:

- Urtarrilak 13, 17, 18 eta 19 (9:30-11:30).

Talde murriztua, ikasle bakoitzak talde bat aukeratuko du, ordu bateko saio bi presentzial eta bi saio online sinkroniko zalantzak lantzeko:

1. taldea: 11:30-12:30.
(presentzial) Irailak 11 eta 25.
(online) Irailak 13 eta 18.
2. taldea: asteazkenak, 11:30-12:30.
(presentzial) Irailak 12 eta 26.
(online) Irailak 17 eta 19.

Presentziala: Zientzia eta Teknologia Fakultatea (Leioa, Bizkaia)

Online: Webex plataforma (egelapi) <https://egelapi.ehu.eus/course/view.php?id=1588>

Parte hartzaile kopurua

20

Hizkuntza

Euskara

Campusa

Online

Irakaslea

María Merino Maestre (Matematikako saila)

Izena emateko epea:

Deialdia zabaldu eta astebetetz luzatuko da izena emateko epea

Izena emateko baldintzak eta matrikula baliogabetzea

Izena langileen atariaren bidez eman beharko da. Ikasle kopurua mugatua izanik, partaideen izena ematearen ordenari, aukeraren lehentasunari eta campusari jarraiki hautatuko dira.

Lantegian izena eman eta onartua izan den norbaitek ezin izango balu bertara joan, 72 ordu aurretik jakinaraz dezan eskatzen diogu, sortutako hutsunea kanpoan geratu den beste pertsona bati eskaintzeko.